**EUZKO ABERTZALEAK - NACIONALISTAS VASCOS TALDEKO LEGEBILTZARKIDE EIDER MENDOZA LARRAÑAGA ANDREAK ETXEKO ENPLEGUAN BITARTEKO DIREN AGENTZIEI BURUZ IDAZKI BIDEZ EGINDAKO GALDERAREN ERANTZUNA**

**1. Etxeko enpleguko zenbat enplegu-agentzia pribatu daude gaur egun EAEn?**

**2. Eusko Jaurlaritzak nola kontrolatzen du agentzia horien jarduera?**

Langileen Estatutuaren 16.2 artikuluaren arabera, debekatuta daude irabazi-asmoa duten enplegu-agentziak. Era berean, artikulu horren arabera, irabazi-asmorik ez duten enplegu-agentziak egon daitezke. Agentzia horiek Enplegu Zerbitzu Publikoak baimenduko ditu eta maiatzaren 5eko 735/1995 Errege Dekretuaren arabera arautuko dira.

Horrenbestez, eta egindako galderari erantzuteko, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuak kontsultatu ostean, esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela irabazi-asmorik gabeko enplegu-agentzia bakar bat ere baimenduta etxeko enplegatuen sektorean. Bestalde, agentzia horiek baleude eta irabazi-asmorik gabekoak balira, Legetik kanpo egongo lirateke, baimenduta ez daudelako, eta irabazi-asmoa dutenak balira, legez kontrakoak izango lirateke argi eta garbi. Kasu horretan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari eskatu beharko lizkioke legozkiokeen administrazio-erantzukizunak.

Hortaz, sor litezkeen legezkontrakotasunak konpontzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak dauzkan baliabideak –eta agentzia horiek badaudela jakin ostean– honako hauek dira: Ikuskatzailetzaren jarduna eskatzea, gertakariak

**RESPUESTA A LAS PREGUNTAS POR ESCRITO FORMULADAS POR DÑA. EIDER MENDOZA LARRAÑAGA , PARLAMENTARIA DEL GRUPO EUZKO ABERTZALEAK - NACIONALISTAS VASCOS, RELATIVAS A LAS AGENCIAS DE INTERMEDIACION EN EL EMPLEO DOMESTICO**

**1. ¿Cuántas agencias privadas de colocación de servicio doméstico existen actualmente en la CAE?**

**2. ¿Qué formas de control existen por parte del Gobierno Vasco de la actividad de dichas agencias?**

El Estatuto de los Trabajadores en su artículo 16.2 prohíbe la existencia de las agencias de colocación con fines lucrativos. A su vez, este artículo contempla la existencia de las agencias de colocación sin fines lucrativos que serán autorizadas por el Servicio Publico de Empleo y que se regularán por el RD 735/1995, de 5 de Mayo.

Por ello, y respondiendo a la cuestión planteada, una vez consultados los datos del Servicio Publico de Empleo Estatal, no existe en el País Vasco autorizada ninguna agencia de colocación sin fines lucrativos en el sector de empleadas de hogar. Por otra parte, si existieran y fueran sin ánimo de lucro, estarían al margen de la Ley por no estar autorizadas, y si fueran con ánimo de lucro, serian claramente ilegales. En este caso al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales únicamente le cabria instar a la Inspección de Trabajo y Seguridad Social para exigir las responsabilidades administrativas a que hubiere lugar.

Consecuentemente, el instrumento que tiene el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales para corregir las ilegalidades que se produjeran

egiaztatu ostean zehapen-prozedurari hasiera eman diezaion; izan ere, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza antolatzen duen azaroaren 14ko 42/97 Legearen eta Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko abuztuaren 4ko 5/2000 Legearen arabera (Lege horretako 16.1 artikuluari jarraiki, arau-hauste hori oso larria da) Ikuskatzailetzari baitagokio hasiera ematea.

son, teniendo conocimiento de las mismas, instar la actuación de la Inspección para que comprobados los hechos inicie el procedimiento sancionador por ser ella la competente según la Ley 42/97, de 14 de noviembre, Ordenadora de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social, y la Ley 5/2000, de 4 de Agosto, de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, que en su articulo 16.1 califica la infracción como muy grave.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 18a
Vitoria-Gasteiz, a 18 de noviembre de 2009

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILBURUA
LA CONSEJERA DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

Gemma Zabaleta Areta